

ZERBITZUA JASOKO DUTENAK

Zerbitzuak hauei zuzenduta egongo dira, haien beharrak asetzea izango da helburua.

Hauek beharraren arabera bereiziko ditugu:

- Behar fisikoak dituztenak (oro har jende heldua edo mugimendu arazoak dituztenak)
- Beste era bateko beharrak dituztenak (haurrekin, gazteekin lotura dutenak).

ZERBITZUA ESKAINIKO DUTENAK

Haien zerbitzuak eskainiko dituzte diru truke. Prestakuntza mailaren arabera zerbitzu jakin batzuk eskaintzeko aukera izango dute. Zenbait zerbitzuetarako ikasketa berezirik behar ez denez, hori egiteko gai den edonork eskaini dezake zerbitzua (erosketak egitea, etxea garbitzea, medikuarenera laguntzea, ikasketetan laguntzea, haurrak zaintzea...). Ikasketa espezifikoak eskatzen dituzten zerbitzuak eskaini ahal izateko gai direla frogatzeko beharrezko dokumentazioa erakutsi beharko da.

PUBLIZITATEA JASOKO DUTENAK

Aplikazioan bertan publizitatea egingo zaie diru truke.

Premiun direnak ez ezik beste erabiltzaile guztiek ikusiko dute publizitatea.

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Batez ere jende helduarengana eta gazte edo haurrengana joko dugu, gure ustez haiek baitira, gaur egun behintzat, behar gehienak dituztenak.

Aplikazioaren erabiltzaileak gurasoak, behar fisikoak dituztenen laguntzaileak... izango dira, zerbitzua jasotzen duenak kudeaketa arazoak izango balitu edo adintxikikoa izango balitz.



JASOKO DUTENAK



PUBLIZITATEA
ESKURATUKO DUTENAK

ESKAINIKO DUTENAK